

Unai Sordori elkarrizketa negoziazio kolektiboa eta gizarte elkarrizketako akordioaren inguruan



Ostiralean CCOOk akordioa sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin, hiru Sailen presentziarekin (Enplegua, Garapen Ekonomikoa eta Hezkuntza) UGT eta Confedebarekin batera. Hitzarmen kolektiboen edo gizarte elkarrizketa beraren inguruko gaiak. Unai Sordok, lortutako akordioaren gakoak eta erabilgarritasuna azaldu dizkigu.

P- Zertan datza lortutako akordioa?

R- Bi alde dauzka. Bata negoziazio kolektiboaren inguruan. Euskadin, negoziazio kolektiboaren esparruan sinatzen diren akordioek besteen gainean lehentasuna izango dutela aitortzen da. Gehiengoaren artean egiten diren sektoreko negoziazioaren aldeko gara, eraginkortasun mugatuari uko egin gabe negoziatu nahi ez diren hitzarmenak desagertzea ekiditeko. Eusko Jaurlaritzak bere aldetik, hitzarmen kolektibo guztiak erregistratzeko konpromisoa hartu du horien difusio handiagoa eman dadin. Bigarren aldea, ordea, gizarte elkarrizketari eduki erabilgarria ematean datza, hau ez dadin unean uneko Gobernuaren borondatearen menpe egon eta argi egon dadin zer den eta zertarako.

Euskadin, negoziazio kolektiboaren esparruan sinatzen diren akordioek besteen gainean lehentasuna izango dutela aitortzen da.

P- Has gaitzen negoziazio kolektibotik: hitzarmen honek hitzarmenen negoziazioa konponduko al du?

R- Ez dago arazo konplexuetarako konponbide sinplerik. Hitzarmenen negoziazioa indarren korrelazioaren menpe egongo da, betiko moduan. Sindikatu eta patronalen korrelazioan. Ezinbestekoa da negoziazioa antolakuntzarekin batera eskutik joatea, eta unea iritsiko balitz, mobilizazioarekin ere bai. Azkeneko adibidea Gipuzkoako paperarena, akordioa lortu dugu 6 eguneko greba eta gero. CCOOren ordezkaritza handiagorik gabe sektore hitzarmenen sarea arriskuan dago. Akordio honekin pausuak eman ditugu Euskadin hitzarmen kolektiboak mantentzea posible dela erakusten.

P- Zein pausu?

R- Une honetan, hitzarmenean agertzen ez diren sindikatuen

kanpaina bat dago martxan negoziazio kolektiboaren “estatizazioa” deitzen dioten horren aurka. Esaten dute euskal eremuko hitzarmenak desagertzearen errua estatu mailako hitzarmenak sinatzea dela. Hala ere, mahai batetan eseri gairen eta euskal hitzarmenei aplikazio lehentasuna ematea lortu dugunean, ELA eta LAB ez dira bertan egon.

P- Ez dirudi oso logikoa, lan harremanen euskal markoa eskatzen dutenean...

R- ELAk ez du inoiz lurralde hitzarmenen aldeko apusturik egin. LABek historikoki bai, antzeko akordioen negoziazio mahietan egondakoak dira. Merkataritza akordio bat dago Euskal Autonomia Erkidegoan hitzarmenak “korazaten” dituenak: zergatik merkataritza balio izan zuenak ez du bestelako sektoreetan balio? Nere ustez hau, langileen eskubideen gaia baino, gai politikoa da batzuentzat.

P- Zein motakoa?

R- Akordio politiko bat berritzeko proiektua sindikalismo abertzaletik. Gaur egun Elkarrekin Ahal dugu alderdiaren presentzia berriarekin eta “Catalunyaren erako” estrategietatik aldentuta dagoen EAJri inkestek ematen dieten emaitza onekin



markatuta dagoen dinamika politikoa aldatu nahi dute Euskadin. Hor LABek oxigenoa eman nahi die Sortu eta Ezker Abertzaleari. Eta ELAk beti nahi izan du alderdiei politikatik kanpo baldintzatzeko papera jokatu. Hau zilegi izan daiteke. Baina "ekintza batasun" horren peajea sektoreko negoziazio kolektiboa da eta hori interes politikoak langile klasearen interesen gainetik jartzea da.



P- Gatazka egon da eraginkortasun mugatuko hitzarmenen inguruan esaten denagatik. Akordio hau horrelako hitzarmenen aldeko apustua al da?

R- Ez. Akordioak eraginkortasun orokorreko hitzarmenei ematen die balioa. Hori da eta hori izango baita Euskadiko CCOOren eredu estrategikoa. Ez dugu era orokorrean eraginkortasun mugatuko hitzarmenen aldeko apustua egiten, ez dago laburbiderik hitzarmenen negoziazioan.

Hori bai, eragin mugatuko hitzarmenak sinatzen direnean, Gobernuak hauek argitaratzeko konpromisoa hartu du. Euskadin gauza bitxia gertatzen da ordea, "gutxiengoen" hitzarmenak direla esaten duten horiek, sinatzen direnean ia erabateko aplikagarritasuna dute. Azkeneko eredu Michelinena. Dagoeneko langileen %90ari aplikatzen zaie, Batzordearen gehien-goak hitzarmena sinatu nahi ez zuenean, ezta ere langileei galdeketa edo erreferendumik egin. Hau da hau batzuek duten demokraziaren kontzeptua!

Mahai batetan eseri garenean eta euskal hitzarmenei aplikazio lehentasuna ematea lortu dugunean, ELA eta LAB ez dira bertan egon.

P- Akordioak gainera gizarte elkarrizketaren inguruko konpromisoa ere jasotzen du.

R- Bai. CCOOrentzat mahai batek langileen gehien-goarentzako erabilgarritasuna izan behar du. Enplegua, prestakuntza edo sustapen ekonomiko politika batzuk daude eta era esanguratsuan eragiten diete langileei. Eta etorkizunean are gehiago. Politika hauen inguruan negoziatu nahi dugu, eta batez ere, horiek langile guztiengana iristea.

P- Ez da beti oso ondo ezagutzen zer diren gauza hauek. Esanguratsua da gure afiliazioak gauza hauen garrantzia ulertzea...

R- Bai. Pedagogia egin behar dugu. Gizarte elkarrizketak

"per se" legitimatzen gaituela pentsatzea akatsa da, nire uste-tan. Lanbide asko prozesuen automatizazioagatik ordezkatu ahal izango direla aurreikusten dugun une batetan bizi garelaz azaldu behar dugu. Edo etxex etxeko laguntza zerbitzuan lan egiteko finkatu edo ziurtatu behar diren eskumen batzuk eskatzen direla. Edo ekoizpen sektore edo enpresa bati krisiak eragiten badio enplegu edo ekintza alternatibak bilatu behar direla.

Gauza guzti hauek enplegu, prestakuntza, sustapen ekonomiko eta abarretako politiketatik egiten dira (edo ez). CCOO galdetzen du: ba al dute hor paperik eragile sozialek, eta horrek guri eragiten digun neurrian, zein paper dute sindikatuek? hori da definitu behar dena.

Hitzarmenen negoziazioa indarren korrelazioaren menpe egongo da, betiko moduan. Ez dugu era orokorrean eraginkortasun mugatuko hitzarmenen aldeko apustua egiten, ez dago laburbiderik hitzarmenen negoziazioan.

P- Eta ba al dugu paperik?

R- Nik uste dut baietz, dudarik gabe. Inork ez du sindikatu moduan langileen artean enpresa txiki eta ertainetan presentzia nahikorik. Enpresa handiak gai dira eragiten dieten aldaketak aurreikusteko eta langileak horretarako prestatzeko. Horietan sindikatuak paper bat dauka, atal sindikal bat egon ohi delako. Baina enpresa txiki eta ertainen ehunean? Zeinek hautematen ditu jendearen beharrak? Zeinek bideratzen ditu aldaketetarrantz, aldaketa horiek lan eskubideak errespetatzen?

P- Parte-hartze paper hori lantzeko konpromisoa legealdien amaieran iritsi da...

R- Bai, Gobernuaren konpromisoa enplegu sailarena baino haratago doa lehengo egunean ikusi ahal izan genuen moduan. Nik uste horrek zerbait esan nahi duela... Hala ere, hau eztabaida zabala da, soziala eta politikoa, hurrengo parlamentu eta Eusko Jaurlaritzan osatzen duten alderdiek lekua hartu beharko dute. Bertan egongo da CCOO, hor ere babesten direlako langile klasearen eskubideak. Gure afiliazioak argi eduki behar du gure lana gabe egoera hori pentsa ezina izango litzatekeela duela hilabete batzuk.



CCOO
euskadiko langile komisioak

